

EUSKEREA IKUSI



Zergaitik ez ete dira erakusten euskerazko aldizkariak?

Gizonak bere ingurua barruratzeko daukan bide edo leiorik egokiena begiak dira.

Belarriak, surrak, ikumena ta txastemena be orretarako lagun dira, baiña indar gitxiagoz.

* * *

Orregaitik, euskerea gure barrura, euskaldunen barrura, sartzea nai ba'dogu, gure begien aurrean zer ikusten dogun kontu zeatza artu bear.

Zori txarrez gure begietatik satzen danik geiena, erdelgirokoa dogu eta orregaitik egiten jaku ain aldatz-gora euskerea ikastea.

* * *

Aspaldion zerbait aurreratu dogu: «Zorionak!» eta olakoak ikusten doguz eta saltokien izenak euskeraz be batzutan bai.

Poztu egingo gara? Kanpaiak jotzen asiko gara?

Ez. Ori gitxi, oso gitxi da. Ori, bear ba'da, euskereari barre egitea baiño ez da. Udan gure areatzetan eta urte guztian non-nai entzuten dan onen antzekoa: Jontxu! VEN!

* * *

Arlo onetara sartu garan ezkeru, ikus-irratia egiten dauskun kaltea ezin isildu: Barri-bide orrek orrelan jarraituaz, gure euskerea galtzea ziur lortuko dau. Ainbeste gizalditako ekiñaldiak eta gudak lortu ez daben gauzea!

Etorriko ete jaku laster euskerazko ikus-irratia? Baietz dirudi!

* * *

Baiña gaur, eta argazkien aurrean, saila txikiago bat aitatu gura dogu: gure «kiosko» edo aldizkarien saltokien arazoa.

Olako zenbat tokitan begira jarten garan, ia euskerazko aldizkaririk ete dagon salgai.

Eta bat bera be ez dogu ikusten!

Zertarako idazten ete dogu?

Zergaitik Euskalerrian euskerarik agiri ez?

* * *

Erru-billa asten gara beingo baten.

Geuk ete dogu errua, toki orreitarra geure aldizkariak eroaten ez doguzalako?

Baiña iñoz egin dogu alperreko lan ori!

Saltzailleen errua ete da, aldizkari orreik eskintzen ez dabezelako edo toki agirian ipinten ez dabezelako?

Ala erosleena ete da, euskerearen ardurarik eta maite-tasunik ez dabelako?

Ala guztion artean banatu bearko ete dogu errua?

* * *

Zerbait aldatu bearko da! Bide orretatik ez goaz ondo!

OLAZAR'tar Martin'ek

(Jon Erramun Bilbao'ren argazkiak)



Ainbeste aldizkari eta guztiak erderaz.